

1,13

*Espazio ilun bat.*

*K, eszenan dagoen gazteak, mugikorra hartu eta zenbaki batera deitzen du:  
5589762*

*Seinale bat entzuten da: 3, 2, 1,*

K: Kaixo. Lehen aldia da hona deitzen dudala. Lagun batek esan zidan eta...  
bueno azkenean ausartu naiz.

Ahots ezezaguna: Datuak?

K: 57,89564327 zenbakia.

Ahotsa: kokalekua.

K: (43.3223557, -1.8997973)

*Eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi aldiz, sudurra ukitu behin eta  
ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz. Arnasa hartu sudurretik eta ahotik  
bota.*

Ahotsa: Ados. Datuak hartuta. Dei bakoitzean minutu bat eta hamairu  
segundu izango dituzu tokatzen zaizuna egiteko eta horrekin, zure proba  
gainditu eta nibeletz pasatzeko. Argibide desberdin bat emango zaizu aldi  
bakoitzean eta seinale bat entzungo duzu hasieran eta bukaeran. Minutu eta  
hamairu segunduak osorik eta ahalik eta hoberen bete behar dituzu. Bi bitzta  
extra dituzu baina behin hori eta gero amaitu da. Dena.

*K gelan dago geldirik, serio eta zain. Eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi  
aldiz, sudurra ukitu behin eta ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz. Arnasa  
hartu sudurretik eta ahotik bota.*

Ahotsa: Lehen proba: Kantatu txikitan kantatzen zenuen abesti bat gelditu  
gabe.

3, 2, 1, Piiii (Ahotsak konometro errealez neurtzen du denbora proba  
guztietan)

K: Eee... Bat, bi, hiru, lau! Shinnosuke da mutiko alai-alai bihurri eta azkarra  
ez da geldirik egoten ez zaitu uzten bakean... SHINNOSUKE! Maitasun  
kontuetan argia naiz benetan, neska gazte guztiak nik ditut atseginak. Zatoz  
txiki, zatoz nirekin, ez dut piper atsegin, begira zer trompa, elefante trompa  
TROMPA! TROMPA! Mutiko bihurria, shin-chan.

Jende guztia oso urduri jartzen da ni azaltzen naizenean etorri nirekin pasatzeko primeran. Nire izena da shin-chan. SHINNOSUKE!

*Berriro hasten da kantatzen, ahotsak geratzen duen arte.*

Shinnosuke da mutiko alai-alai bihurri eta azkarra ez da geldirik egoten ez zaitu uzten bakean...

Ahotsa: Piiiiii Minutu bat eta 13 segundu. Gainditua, txek!

K: Toma!

*Kk eskua isten du harrotasunez, lortu duelako.*

Ahotsa: Bigarren proba: egin sekuentzia hau 10 aldiz:

Txalo, salto, salto, txalo, "A" esan, bira bat zure baitan, makurtu, lurrari muxu eman eta "iuuuu" esan.

lehen hiruetan ni joango naiz esaten. Gero zure kabuz jarraitu beharko duzu.

3, 2, 1 Piiii

Ahotsa entzuten den aldi berean, K sekuentzia egiten doa fisikoki.

Ahotsa: Txalo, salto, salto, txalo, "A" esan, bira bat zure baitan, makurtu, lurrari muxu eman eta "iuuuu" esan.

Txalo, salto, salto, txalo, "A" esan, bira bat zure baitan, makurtu, lurrari muxu eman eta "iuuuu" esan.

Txalo, salto, salto, txalo, "A" esan, bira bat zure baitan, makurtu, lurrari muxu eman eta "iuuuu" esan.

(Kk bere kabuz jarraitzen du, aldi bakoitza ozen kontatzen. Geroz eta galduago, geroz eta nekatuago, eta geroz eta azkarrago egiten saiatzen.)

K: lau (baxu-baxu) Txalo, salto, salto, txalo "A"....

bost, txalo, salto, salto, txalo, "A"... "iuuuu"

sei, txalo, salto, salto, txalo, "A"... "iuuuu"

zazpi, txalo salto, "A", txalo... "iuuuu"

zortzi, "A" "iuuuu"

bederatzi... "A" "iuuuu"

K ez da iristen. K lurrean geratzen da.

Ahotsa: Piiii porrota. Bizitza bat gutxiago duzu.

Kk Eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi aldiz, sudurra ukitu behin eta ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz. Arnasa hartu sudurretik eta ahotik bota. Frustrazio maila aregotzen hasten da.

Ahotsa: Hirugarren proba: Kontatu zein gauza egiten dituzten zure auzokideek.

3, 2, 1, Piiii

K: Baa (azkar hitz egiten du) bigarren pixuko gizona egunero goizeko 9 etan ogia erostera joaten da. Pareko andreak ondoko herrian egiten du lan, baina beti dio herri hau hobea dela. Ondoko eraikinean dago neska bat dantzaria dena eta aurrerago beste batek musika konposatzen du. Gainontzeko asko ez dakit zergaitik ez diren ateratzen. Eta ni ere ez. (haserretzen hasten da) Baina nire eskolako lagunak egunero auzo honetatik pasatzen dira eta zoriontsu dirudite eta gauzak egiten dituzte baina nik ez eta alboko kafetegian bi kafesne eta ebaki bat eskatzen dituzte. Nire aitak auzokide guztiekin ondo eramatearen plantak egiten ditu baina etxean denak kritikatzten ditu. (Eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi aldiz, sudurra ukitu behin eta ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz. Arnasa hartu sudurretik eta ahotik bota. Eta jarraitzen du.) Supermerkatuko langileak jatorrak dira, nik beraiekin bakarrik hitz egiten dut. (Haserreago) Denak hor daude, eta ni hemen eta festak izan ziren, eta festak dira ia beti, festak maiatzean, festak irailean, festak abuztuan, baina gero gabonak, inauteriak, eta edozein asteburutan ere eta festak hemen eta han (geroz eta haserreago) eta ondoko herrietan, baina herritar guztiek ez dituzte interes berdinak, baina batzuetan hala dirudi baina...

Ahotsa: Piiii minutu bat eta hamairu segundu. Gainditua, txek!

K: Toma!

*Kk eskua isten du harrotasunez, lortu duelako.*

Ahotsa: Laugarren proba: Abesti baten link-a bidali dizugu.

[https://youtu.be/QX\\_wBZz3iRE?si=K95xUQHsiANGHh5G](https://youtu.be/QX_wBZz3iRE?si=K95xUQHsiANGHh5G)

Klikatu eta ondo dantzatu behar duzu. Estilista, elegante, erakargarria, interesgarria eta denetan hoberena zarela ikusi behar da. Esaten joango garen argibideak jarraitu beharko dituzu, baina ezin duzu gerria mugitzeaz utzi eta momenturen batean perreatu egin behar duzu.

*K pixka bat shock-ean geratzen da baina musika entzuten da eta gerria mugitzen hasten da. Eskuak izterretan jarri eta ipurdia atzera botaz, perreatzen saiatzen da.*

Ahotsa: 3, 2, 1, Piiii

*Ahots ezezagunak esaten dion guztia egiten doa:*

Ahotsa: Orain igo eskubiko eskua burura.

Ahotsa: Orain atera mihia eta pasa ezpainen goiko aldetik eta goiko hortzekin hozka egin sentsualitate osoz beheko ezpainari.

Ahotsa: Orain eman bira bat zure baitan ezkerreko hankan pibotatuz eta eskuineko eskua mugituz.

Ahotsa: Orain imaginatu beste batekin zaudela aurrez aurre eta beraz, ipurdia mugitzen duzun bitartean beheraino makurtu. Baina polita eta sentsuala izan behar du, ezin zara erori edo mugimendu arrarorik egin.

Ahotsa: Azken segunduetan zure hoberena eman behar duzu.

*K azken segunduetan ahal duen moduan dantzatzen eta perreatzen saiatzen da.*

Ahotsa: Piiii minutu bat eta hamairu segundu. Musika stop. Ez dakit zer esan, bizitza erdi gutxiago duzu. Urrengo proban ikusi nahi zaitugu.

Bosgarren proba: Isilik eta geldirik egon zure bizitzan pentsatzen.

(\*\* 1,13 minutu erreal)

3, 2, 1 Piiii

*Segundu batzuetan geldirik egon eta gero eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi aldiz, sudurra ukitu behin eta ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz.*

*Arnasa hartu sudurretik eta ahotik bota. Gelditasun eta isiltasunean inkomodo dago baina serio mantentzen saiatzen da.*

Ahotsa: Piiii Minutu bat eta hamairu segundu. Mugitu egin zara, bizitza erdi gutxiago duzu. Azken aukera.

Seigarren proba: Kontatu arazo bat. Kezka bat.

3, 2, 1, Piiii

K: Baaaa ez dakit zer egin, ez dakit erabaki bat hartu edo bestea edo gauza bat egin ala bestea. Edo ez dakit zein izango den hobeto nire etorkizunerako baina eske ez dakit ere zein izango den hobeto nire orainerako; Erabakitzen dudana erabakitzen dudala ere beste aukeretan zer gertatzen ari den pentsatzen egongo naiz, eta dena nahi dut eta dena aldi berean, baina aldi bakarra dago dena edo bat egiteko eta aldi horretan ondo sartu behar zara. Eta A aukeratzen badut pentsatuko dut B hobe dela eta B aukeratzen badut A eta horrela eta alderantziz.

Ez dakit. Niri gertatzen zait.

*(Hitz egiten jarraitzen duen bitartean, eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi aldiz, sudurra ukitu behin eta ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz. Arnasa hartu sudurretik eta ahotik bota.)*

Baina aurrekoan lagun batek esan zidan ez zela guztiz normala, eta horrela ezin naizela bizi zeba azkenen bakarrik pentsatzen nago eta bakarrik pentsatzen, ordun bakarrik nago eta bakarrik pentsatu egiten det eta pentsatzeak bakarrik gehiago pentsatzea ekartzen dit baina bakarrik. Eta uste dut hoi dala arazoa. Zeba igual ahal nun ez pentsatu bakarrik eta bakarrik pentsatzeaz utzi. Baina pentsatzeaz uztea ezin da, eta ez hori bakarrik, eta bakarrik gutxiago. Eta hori. Baina eske ez dakit ezta nor naizen. (geroz eta inpotenteago) Ez dakit zergaitik izan behar naizen ere. Eta nire ama zahartzen ari da eta nire aita ere bai eta ez dakit nola eraman hori,

IA: Piiiiii mi

K: mierda bat da hau, ez dakit gai naizen eta dena super ondo egin behar da zeba bestela ez det ezertarako balio eta ez det lanik edukiko eta ez nau inork maiteko eta ez naiz maite ordun

IA: Piiii mi...

K: nola eskatuko diet besteei? eta ez dakit norekin ari naizen hitz egiten. Eta badakizu zenbat balio duen gaztak? Eta zenbat olioak? (geroz eta azkarrago eta inpotentzia gehiagorekin) Eta ze super

IA: Piiii mi...

zaila den zure gorputzarekin ondo egotea? Eske joder,  
Eta handia naizenean norekin biziko naiz? Edo nork ordainduko du nire etxea?

IA: Piiii mi

K: Jubilatuko naiz? Ala ordurako mundua lehertuko da? (*Eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi aldiz, sudurra ukitu behin eta ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz. Arnasa hartu sudurretik eta ahotik bota. Eta jarraitzen du.*)

IA: Piiii mi

K: Eta ze mierda da hau? Zein zara? Nor dago hor?  
(Oihuka) Norbait dago hor? Non nago??  
Eeeoooo! Lagundu??

*Geldirik geratzen da.*

*Eskubiko eskuaz kopeta igurtzitzen du bi aldiz, sudurra ukitu behin eta ezkerreko eskua heltzen du bi segunduz. Arnasa hartu sudurretik eta*

IA: Piiiiii GAME OVER. Zure bizitza hemen amaitu da.

Iluna